

AQUARIUM GETXO BISITATZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2020

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak araupetzen dituen 9/2005 Foru Arauarekin bat etorritik, tasak ezarri eta eskatzen ditu eranskinean jasotako zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak egiteagatik, ordenantza honen terminoetan, eta aurrenekoek horiek osatzen dituzte.

2. artikulua.- Ordenantza udal mugarte osoan aplikatzen da.

II.- ZERGA EGITATEA

3. artikulua.- Zerga egitate da Aquarium Getxo bisitatzea edo bertan sartzea.

III.- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.- Zergadunen kontzeptuan, subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta aurretik aipatutako esparruan sartzea eskatzen duten Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 34. artikulua aipatzen dituen erakundeak.

V.- TARIFA

5. artikulua.- Tarifa kopuru finko baten arabera ezartzen da, eta bere kuota Zerga Ordenantza honen eranskinean adierazten da.

VI.- SORTZAPENA

6. artikulua.- Tasa sorrarazten da eta zerga ordaintzeko beharra jaiotzen da bisitariak Aquarium Getxo izenekoan sartzeko eskatzen duen momentuan, eta ticketak edo tasaren ordainketa egiaztatzen duten bestelako agiriak erostean eskabidea egin dela jotzen da.

VII.- ORDAINKETA

7. artikulua.- Tasaren ordainketa Aquarium Getxo bisitatu den momentuan egingo da. Bisitatzat esparruan sartzea eta ikustaldia egiteko beharrezko denboran bertan egotea hartzen da, irekitzeko ordutegiaren muga egonik. Sarrerak esparruan sartzeko eskubidea baino ez du emango.

VIII.- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza eta eranskin hauek 2007ko apirilaren 27an onetsi ziren eta 2016ko apirilaren 27ko osoko bilkuraren erabakiz aldarazia izan zen, Bizkaiko Lurralde

Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta bere argitalpenaren ondoko egunean indarrean sartuko da eta indarrean egongo da bere aldarazpena erabaki arte.

ERANSKINA. TARIFA

HELDUAK BANAKAKOA	3,25 €
HELDUAK TALDEA (12 lagun gutxienez)	2,70 €
HELDUAK TALDEA (Bisita gidariarekin)	4,90 €
IKASLEAK ETA ERRETIRATUAK BANAKAKOA	2,70 €
IKASLEAK ETA ERRETIRATUAK TALDEAN (12 lagun gutxienez)	2,15 €
IKASLEAK ETA ERRETIRATUAK BISITA GIDARIAREKIN	4,35 €
4 eta 14 urte bitarteko UMEAK (4 urtetik beherakoek ez dute ordaindu behar)	2,15 €
4 eta 14 urte bitarteko UMEAK TALDEAN (12 lagun gutxienez)	1,60 €
4 eta 14 urte bitarteko UMEAK (12 lagun gutxienez)	3,80 €